l) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion bestelako egitekoak edo Jaurlaritzako Sailburuordetza guztiek oro har gauzatu behar dituzten eginkizun komunak.

*8. artikulua.–* Kultura Saileko Zuzendaritzak.

Dekretu honen 2. artikuluan zehazten diren Saileko zuzendaritzetako arduradunek, oro har, egiteko hauek izango dituzte:

a) Zuzendaritzako barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatuko dituzte, organo eskudunek ezarritako arauen arabera.

b) Zuzendaritzako jarduerak programatzea, zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea, hierarkiako organo hurrenak emandako jarraibideen arabera.

c) Beren ardurapeko arloetan egin beharreko ekintza-planak edo programak proposatuko dizkiete organo nagusiei.

d) Dekretu honek esleitzen dizkion egitekoak gauzatzeko behar diren administrazio-egintzak ematea.

e) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkien gainontzeko egitekoak eta Jaurlaritzako zuzendariei oro har dagozkienak.

I. ATALA
KULTURA, GAZTERIA
ETA KIROL SAILBURUORDETZA
ETA HORREN ZUZENDARITZAK

*9. artikulua.–* Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza.

1.– Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzako pertsona arduradunak dekretu honen 7. artikuluan ezartzen diren egitekoak beteko ditu ondoko arloetan:

a) Historia eta arte ondarearen kudeaketa eta zainketa; museo, liburutegi eta artxiboak.

b) Arte eta kultura mailako jarduerak eta horien hedapena.

c) Kirolak.

d) Gazteria eta gizarte garapena.

2.– Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak kulturaren, gazteriaren eta kirolaren alorretan, Euskadiko herri-erakundeak euren artean koordinatuta lanean jardun dezaten eta euren arteko politika bateratzen jardungo du. Gainera, jardun-esparru horietan indarrean dagoen legeria garatu eta betetzen dela zainduko du, eta bereziki, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legea eta Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea.

k) Incoar los procedimientos sancionadores e imponer las sanciones que en las materias de sus ámbitos de actuación no vengan atribuidas a ningún otro órgano.

l) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Viceconsejerías del Gobierno.

*Artículo 8.–* Las Direcciones del Departamento de Cultura.

Las personas al frente de cada una de las Direcciones del Departamento que se detallan en el artículo 2 de este Decreto desarrollarán con carácter general las siguientes funciones:

a) Organizar los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes.

b) Programar, dirigir, coordinar y controlar las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones recibidas del órgano superior inmediato.

c) Proponer a los órganos de los que dependan los planes o programas de actuación en las materias atribuidas a su competencia.

d) Dictar los actos administrativos para la ejecución de las funciones que se les asignan por el presente Decreto.

e) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las personas que ostenten las Direcciones en el Gobierno.

SECCIÓN I
DE LA VICECONSEJERÍA DE CULTURA,
JUVENTUD Y DEPORTES
Y DE SUS DIRECCIONES

*Artículo 9.–* Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes.

1.– La persona que ostente la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes, ejercerá las funciones que se establecen en el artículo 7 del presente Decreto en relación a las siguientes áreas de actuación:

a) Gestión y Protección del Patrimonio Histórico Artístico, Museos, Bibliotecas y Archivos.

b) Actividades artísticas y culturales y su difusión.

c) Deportes.

d) Juventud y Desarrollo Comunitario.

2.– A este órgano administrativo corresponderá acometer la actuación coordinada y el desarrollo de una política común de las Instituciones Públicas Vascas en materia de cultura, juventud y deportes, velando por el desarrollo y cumplimiento de la normativa vigente en tales ámbitos de actuación y, en particular de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco, de la Ley 14/1998 del Deporte del País Vasco y cuantas otras Leyes puedan dictarse específicamente en tales áreas de actuación.

3.– Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzako pertsona arduradunak hasiera emango die Euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunak Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legean zehazten diren kategorietan sailkatzeko edo zerrendatzeko espedienteei, eta helburu horrekin hartu beharreko erabakiak ere berak hartuko ditu, betiere erabakiok hartzea Administrazioko beste organoren baten eskumena ez bada. Halaber, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen eta ondare historiko artistikoa babesteko eta gordetzeko gainontzeko araudiaren arabera Eusko Jaurlaritzari dagozkion zehapen espedienteei ere emango die hasiera eta ebatziko ditu.

4.– Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzako pertsona arduradunak Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak xedatutakoaren arabera Sailari dagozkion espedienteei hasiera emango die eta ebatziko ditu –baldin eginkizun hori beste organoren bati esleitu ez bazaio–, bereziki, gai horretako zehapen-ahalmena Eusko Jaurlaritzak esleitua izaki, bideratu beharreko espedienteak.

5.– Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak esleituta dituen egitekoak gauzatzeko honako zuzendaritza hauek izango ditu hierarkikoki bere menpe:

a) Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

b) Kultura Sustatzeko Zuzendaritza.

c) Kirol Zuzendaritza.

d) Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza.

6.– Kulturaren Euskal Kontseiluak eta Kirolaren Euskal Kontseiluak Kultura Sailari atxikita daudelako bete beharreko harreman- eta koordinazio-egitekoak Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak egingo ditu. Horretarako sailburuordeak bere zuzendaritzen baliabideez baliatuko da.

*10. artikulua.*– Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

1.– Euskal Kultura Ondarearen Zuzendaritzak dekretu honen 8. artikuluan ezarritako egitekoak izango ditu, euskal kultura ondarea zaintzea, aberastea, babestea, zabaltzea eta sustatzea xede duten arloetan, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen eta hori garatzeko emango diren xedapenen arabera.

2.– Egiteko horiek gauzatzeko ondorengo zerbitzuak ditu Kultura Ondarearen Zuzendaritzak:

a) Kultura Ondarearen Zentroa.

b) Museoen Zentroa.

c) Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa (Irargi).

d) Liburutegi Zerbitzua.

2.1.– Hauek izango dira Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren egitekoak:

a) Euskal Kultura Ondarearen Dokumentazio Zentroaz arduratzea.

3.– La persona que ostente la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes, incoará y adoptará cuantos acuerdos no vengan atribuidos a otro órgano de la Administración y sean necesarios para la tramitación de los expedientes conducentes a calificar o inventariar cualquier bien integrante del patrimonio cultural vasco conforme a las categorías previstas en la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco. Asimismo, incoará y resolverá los expedientes sancionadores que al Gobierno Vasco corresponden en aplicación de la citada Ley 7/1990, de 3 de julio del Patrimonio Cultural Vasco, y demás normativa relativa a la protección y defensa del patrimonio histórico artístico.

4.– La persona que ostente la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes, cuando no se encuentre expresamente atribuido a otro órgano, incoará y resolverá cuantos expedientes, correspondan al Departamento, en virtud de lo dispuesto por la Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco, y en particular los relativos a la potestad sancionadora atribuida en dicha materia al Gobierno Vasco.

5.– Para el ejercicio de las funciones que vienen atribuidas a la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes, bajo su dependencia jerárquica se establecen las siguientes Direcciones:

a) Dirección de Patrimonio Cultural.

b) Dirección de Promoción de la Cultura.

c) Dirección de Deportes.

d) Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

6.– Las funciones de relación y coordinación que procedan por razón de su adscripción al Departamento de Cultura, del Consejo Vasco de la Cultura y del Consejo Vasco del Deporte, serán acometidas desde la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes. A tal efecto su titular dispondrá de los medios adscritos a las Direcciones existentes en su ámbito.

*Artículo 10.*– Dirección de Patrimonio Cultural.

1.– Corresponde a la Dirección de Patrimonio Cultural, el ejercicio de las funciones establecidas en el artículo 8 del presente Decreto en los ámbitos relacionados con la defensa, enriquecimiento, protección, difusión y fomento del patrimonio cultural vasco en los términos establecidos en la Ley 7/1990, de 3 de julio y en las disposiciones que se dicten en su desarrollo.

2.– Para el ejercicio de tales funciones la Dirección de Patrimonio Cultural se organiza en los siguientes servicios:

a) Centro de Patrimonio Cultural.

b) Centro de Museos.

c) Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, Irargi.

d) Servicio de Bibliotecas.

2.1.– Corresponde al Centro de Patrimonio Cultural:

a) Mantener el Centro de Documentación del Patrimonio Cultural Vasco.

b) Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroa eta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusia zuzentzea eta kudeatzea, horien antolaketa eta funtzionamendu araudian xedatutakoaren arabera. Erakunde horiek uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bitartez sortu ziren.

c) Kultura Ondarea hedatzeko lanak antolatzea, erakusketen eta argitalpenen bitartez.

d) Euskal Kultura Ondarea ikertzeko eta arloko espezialistak prestatzeko neurriak diseinatzea eta kudeatzea.

e) Eusko Jaurlaritzako sailei, foru aldundiei eta udalei laguntza ematea eta horiekin lan egitea, Euskal Kultura Ondarea babesteko jarduerak eraginkorrak izan daitezen.

f) Euskal Kultura Ondarearen inguruan egiten diren kontsultei erantzutea eta herritarrei informazioa ematea.

g) Ondasunak monumentu/monumentu multzo izendatzeko edo Kultura Ondasunen artetik ateratzeko eta Balizko Arkeologi Guneak mugatzeko espedienteak izapidetzea.

h) Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legea garatzeko xedapenak eta Kultura Ondarea hobeto babesteko eta gordetzeko jarraibide orokorrak proposatzea eta, hala badagokio, lantzea.

i) Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean parte hartzeak dakartzan lanak burutzea.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza planeamenduari eta lurralde antolamenduari buruzko agiriez irizpena ematea, hala dagokionean.

k) Euskal Kultura Ondarea gordetzeko, aberasteko, babesteko, hedatzeko eta sustatzeko helburuarekin aurrekontuetan dagoen ehuneko bateko erreserbatik datozen funtsak erabiltzeko irizpide materialak proposatzea eta sailak dituen eskumenak gauzatzea.

l) Sailkatutako eta inbentariatutako kultura ondasunen erosle-lehentasuneko eta atzera eskuratzeko eskubide-espedienteak izapidetzea. Eskubide horiek Eusko Jaurlaritzak beretzat edo bestelako erakunde publikoentzat zein irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundeentzat erabili ahal izango ditu.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko material arkeologikoaren gordailua kudeatzea.

n) Kultura ondarearen alorreko zehapen-espedienteen instrukzioa egitea, betiere zehapena jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoei badagokie.

2.2.– Hauek izango dira Museoen Zentroaren zereginak:

a) Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bidez sortutako Euskadiko Museoen Sistema Nazionalari dagozkion egitekoak garatzea eta egitea.

b) Dirigir y gestionar el Registro de Bienes Culturales Calificados y el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, creados por la Ley 7/1990, de 3 de julio, de acuerdo con lo que disponga su reglamento de organización y funcionamiento.

c) Organizar la labor de difusión del Patrimonio Cultural a través de exposiciones y publicaciones.

d) Diseñar y gestionar las medidas de fomento de la investigación del Patrimonio Cultural Vasco y la formación de especialistas.

e) Prestar asesoramiento y colaboración a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, Diputaciones y Ayuntamientos en aras de lograr una actuación eficaz para una mejor protección del Patrimonio Cultural Vasco.

f) Informar a las ciudadanos y ciudadanas y, atender las solicitudes de consulta que se formulen en torno al Patrimonio Cultural Vasco.

g) Tramitar los expedientes de calificación, inventariado y zonas de presunción arqueológicas así como los expedientes de desafección del Patrimonio Cultural Vasco.

h) Proponer y, en su caso, elaborar las disposiciones de desarrollo de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco y las directrices generales para la mejor protección y defensa del Patrimonio Cultural.

i) Realizar las labores inherentes a la participación del Departamento en la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

j) Informar en el ámbito de actuación asignado los documentos de planeamiento urbanístico y de ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del país Vasco, cuando así proceda.

k) Desarrollar las funciones atribuidas al Departamento de Cultura, relativas a los criterios de aplicación de los fondos procedentes de la reserva presupuestaria del uno por ciento para su aplicación en la defensa, enriquecimiento, protección, difusión y fomento del patrimonio cultural vasco y la propuesta de los criterios materiales de aplicación de dichos fondos.

l) Tramitar los expedientes de tanteo y retracto de los bienes culturales calificados e inventariados que el Gobierno Vasco podrá ejercitar, tanto para sí como para otras instituciones públicas o de carácter cultural sin ánimo de lucro.

m) Gestionar el depósito de materiales arqueológicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

n) Instruir los expedientes sancionadores en materia de patrimonio cultural, cuya sanción competa a los órganos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.2.– Corresponde al Centro de Museos:

a) Desarrollar y acometer las funciones que corresponden al Sistema Nacional de Museos de Euskadi, creado por Ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko museoen erregistroa kudeatzea.

c) Museoen arloan diren beharrak aztertzea eta arauzko neurriak proposatzea.

d) Museoen gaineko kudeaketaz, programazioaz eta zabalkundeaz aholkularitza teknikoa ematea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko museoen arteko planifikazioa eta lankidetza bultzatzeko neurriak diseinatzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko museoei laguntzak emateko sistema kudeatzea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoan gordetako euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunen esportazioa eta mugimendua ikuskatzea dela-eta, Eusko Jaurlaritzari dagozkion administrazio-jarduerak egitea.

h) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin batera eta zuzendaritza horren egitekoak urratu gabe, Eusko Jaurlaritzarenak diren arte-ondasun higigarrien jarraipena egitea.

i) Euskadiko Museoen Sistema Nazionalean sartuta dauden museoetako teknikarien prestakuntza-ekintzak sustatzea eta aholkularitza eskaintzea.

j) Museoen gaineko gaietako argitalpenak bultzatzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko museoetan gordetako kultura-ondasun higigarriak dokumentatzeko, kontserbatzeko eta babesteko irizpideak zehaztea.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko museoetan gordetako kultura-ondasun higigarriak zerrendatzea eta zabaltzea.

2.3.– Hauek izango dira «Irargi» Dokumentu Ondarearen Zentroaren zereginak:

a) Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen bidez sortu zen Euskadiko Museoen Sistema Nazionala dela-eta, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartu zituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak ezartzen dizkion egitekoak gauzatzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Zerbitzuen kudeaketa-jarduerak koordinatzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Zerbitzuetako agirien tratamendua eta hedadura normalizatzea eta irizpideak finkatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden edo horri buruzkoak diren artxibo publiko zein pribatuetako funtsetan dagoen informazioaren deskribapena eta hedadura sustatzea.

e) Ondare bibliografikoaren eta artxiboen alorrean diren beharrak aztertzea eta arauzko neurriak proposatzea.

b) Gestionar el registro de museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Analizar las necesidades y proponer medidas normativas en materia de museos.

d) Asesorar técnicamente en materia de gestión, programación y difusión museística.

e) Diseñar las medidas para la planificación y cooperación entre los museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) Gestionar el sistema de ayudas a los museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

g) Acometer las actuaciones administrativas que al Gobierno Vasco corresponden respecto a la exportación y supervisión del movimiento de los elementos integrantes del patrimonio cultural vasco depositados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

h) Realizar en colaboración y sin perjuicio de las funciones propias de la Dirección de Patrimonio y Contratación, el seguimiento de los bienes artísticos muebles propiedad del Gobierno Vasco.

i) Asesorar las actividades de formación del personal técnico de los museos, integrados en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi.

j) Impulsar las publicaciones sobre temas museísticos.

k) Definir los criterios relativos a la documentación, conservación y protección de los bienes culturales muebles depositados en los museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

l) Relacionar y difundir el patrimonio cultural mueble depositado en los museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.3.– Corresponde al Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, Irargi:

a) Desarrollar las funciones que en relación al Sistema Nacional de Archivos de Euskadi, creado por Ley 7/1990, de Patrimonio de Euskadi, se le asignan por Decreto 232/2000, de 21 de noviembre, por el que se aprueban el Reglamento de los Servicios de Archivo y las normas reguladoras del Patrimonio Documental del País Vasco.

b) Coordinar las actividades de los Servicios de Archivo de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la gestión de los mismos.

c) Normalizar los criterios y tratamiento de la documentación de los Servicios de Archivo de Euskadi y la difusión del contenido de los mismos.

d) Fomentar la descripción y la difusión de la información de los fondos de archivo públicos y privados ubicados o referentes a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

e) Analizar las necesidades y proponer medidas normativas en materia de Patrimonio Documental y Archivos.

f) Kultura ondareari buruzko politikaren esparru orokorraren barruan, ondare dokumentalari eta artxiboei buruzko berariazko politika diseinatzea eta kudeatzea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko ondare dokumentalaren eta artxiboen balioari buruzko kontzientzia sozial eta kolektiboa bultzatzeko neurriak aztertzea eta proposatzea eta gai horretako prestakuntza eta hezkuntza sustatzeko behar diren erakundeekin lan egitea.

2.4.– Hauek dira Liburutegi Zerbitzuaren zereginak:

a) Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bidez sortutako Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari dagozkion egitekoak garatu eta gauzatzea.

b) Jabetza Intelektualaren Erregistroaren eta hori kudeatzeko erakundeen alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen egitekoak betetzea.

c) Legezko Gordailuaren eta ISBNaren alorretan Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak dituen egitekoak betetzea.

d) Euskal produkzio bibliografikoa eta euskararen eremukoa biltzea, gordetzea eta zabaltzea.

e) Euskal bibliografia nazionala eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egitea.

f) Liburutegietan irakurtzeko zaletasuna sustatzeko neurriak diseinatzea.

g) Ondare bibliografikoaren eta liburutegien alorrean diren beharrak aztertzea eta arauzko neurriak proposatzea.

h) Liburutegien eta ondare bibliografikoaren alorreko politika kudeatzea. Horretarako, beharrezko diren proiektuak sustatu, bultzatu eta zuzenduko dira.

i) Sistema osatzen duten liburutegietako funtsen bibliografia erreferentziak bilduko dituen katalogo kolektiboa diseinatzea eta kudeatzea.

j) Liburutegien alorrean euskararen erabilera normalizatzeko zer egin behar den ikertzea eta zehaztea.

k) Sistema osatzen duten erabilera publikoko liburutegientzat jarduteko eredu izango diren irizpide teknikoak eta jarraibideak ezartzea.

l) Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala osatzen duten liburutegien arteko lankidetza koordinatzea, liburutegietako baliabideak hobeto aprobetxatzeko.

m) Liburutegietan ematen diren zerbitzuak ebaluatzeko tresnak diseinatzea eta kudeatzea eta lortutako datuak aztertzea; ondoren, liburutegiei beren ahalmenak ondoen aprobetxatzeko metodologia eskaintzeko.

n) Erabilera publikoko liburutegietan lan egiten duten pertsonen profila zehazteko eta prestakuntza bultzatzeko behar diren neurriak zehaztea.

f) Diseñar y gestionar la política específica de Patrimonio Documental y Archivos en el marco general de la política de patrimonio cultural.

g) Analizar y proponer las medidas de concienciación social y colectiva sobre el valor del Patrimonio Documental y los Archivos de Euskadi, contribuyendo a la formación y educación en esta materia con cuantos organismos sea preciso.

2.4.– Corresponde al Servicio de Bibliotecas:

a) Desarrollar y acometer las funciones que corresponden al Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi, creado por Ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco.

b) Ejercer las funciones que en relación al Registro de la Propiedad Intelectual y entidades gestoras de aquélla correspondan a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Desarrollar las funciones que en relación al depósito legal y el ISBN, correspondan a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) Recoger, conservar y difundir la producción bibliográfica vasca y la relacionada con el ámbito lingüístico vasco.

e) Elaborar la bibliografía nacional vasca y el catálogo colectivo del patrimonio bibliográfico.

f) El diseño de las medidas de promoción de la lectura bibliotecaria.

g) Analizar las necesidades y proponer medidas normativas en materia de Patrimonio Bibliográfico y de Bibliotecas.

h) Diseñar y acometer las medidas para la gestión de una Política Bibliotecaria y de Patrimonio Bibliográfico, impulsando y dirigiendo los proyectos necesarios.

i) Diseñar y gestionar un catálogo colectivo que reúna las referencias bibliográficas de los diferentes fondos de las bibliotecas que integran el sistema y asegurar su accesibilidad.

j) Investigar y definir las necesidades existentes en el ámbito bibliotecario al efecto de normalizar el uso del euskera en el mismo.

k) Establecer criterios técnicos y marcar unas directrices que sirvan de pautas de actuación para las bibliotecas de uso público integrantes en el sistema.

l) Coordinar la cooperación entre las bibliotecas integrantes en el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi al objeto de lograr un mejor aprovechamiento de los recursos bibliotecarios.

m) Diseñar y gestionar unos instrumentos de evaluación de los diferentes servicios que se prestan en las bibliotecas y analizar los datos obtenidos, facilitando a las bibliotecas la metodología necesaria que les permita aprovechar al máximo su potencial de actuación.

n) Definir las medidas necesarias para la formación y definir el perfil de las personas que trabajan en las bibliotecas de uso público.

3.– Kultura Sailari atxikita dauden aldetik, ondorengo kide anitzeko organoen egitekoak gauzatzea:

a) Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea, urriaren 23ko 284/1990 Dekretuak arautua.

b) Euskadiko Arkeologia Ondarearen Aholku Batzordea, martxoaren 26ko 62/1996 Dekretuak arautua.

c) Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua, azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak arautua.

*11. artikulua.–* Kultura Sustatzeko Zuzendaritza.

1.– Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak dekretu honen 8. artikuluan ezarritako egitekoak gauzatuko ditu honako arlo hauetan: musika, antzerkia, dantza, liburugintza, ikus-entzunezkoak eta arte bisualak.

2.– Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak aipatutako arloetako lanbide-jarduerez arduratuko da bereziki.

3.– Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak zeregin hauek izango ditu:

a) Aipatutako arloetan dauden beharrak aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horietan burutzen diren jarduerak bultzatzeko, sendotzeko eta/edo zabaltzeko egoki ikusten diren administrazio-neurriak hartzea.

b) Kulturaren Euskal Behatokia zuzentzea. Behatokiak Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren alorrean informazio, dokumentazio eta ikerketa zentro moduan jardungo du, zuzendaritzaren mendeko zerbitzua den aldetik.

c) Sailburuordetzaren eskumenean dauden alorretan egokitzat jotzen diren azterlan eta ikerketak egitea, eta horren dokumentazioa eta zabalkundea.

d) Bereziki arlo horietan diharduten erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetza bultzatzeko formulak aztertzea.

e) Arlo horietan erakunde publikoek izango duten jarduera planifikatzeko egitasmoak burutzea.

f) Arlo horietan kultura kontserbatzeaz, sortzeaz eta zabaltzeaz arduratzea.

g) Euskadiko kultura-industriak garatzen laguntzea eta bultzatzea.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen eta euskal kulturaren eremuko lurraldeen arteko kultura-harremanak sustatzea.

i) Euskal Kulturaren sorkuntza kanpoan zabaltzeko neurriak aztertzea eta proposatzea.

*12. artikulua.–* Kirol Zuzendaritza.

1.– Kirol Zuzendaritzak dekretu honen 8. artikuluan ezarritako egitekoak gauzatuko ditu kirolarekin lotuta dauden arloetan, betiere arlo horietako eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarenak badira.

3.– La Dirección de Patrimonio Cultural ejercerá las funciones que correspondan por razón de su adscripción de los siguientes órganos colegiados:

a) El Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi, regulado por Decreto 284/1990, de 23 de octubre.

b) El Consejo Asesor de Patrimonio Arqueológico, regulado por Decreto 62/1996, de 26 de marzo.

c) El Consejo Asesor de Patrimonio Documental y Archivos de Euskadi, regulado por Decreto 232/2000, de 21 de noviembre.

*Artículo 11.–* Dirección de Promoción de la Cultura.

1.– Corresponde a la Dirección de Promoción de la Cultura, el ejercicio de las funciones establecidas en el artículo 8 del presente Decreto en las áreas de música, teatro, danza, libro, audiovisual y artes visuales.

2.– La Dirección de Promoción de la Cultura atenderá preferentemente la actividad profesional en las áreas antes citadas.

3.– Corresponde a la Dirección de Promoción de la Cultura el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Analizar las necesidades existentes en las áreas señaladas y adoptar las medidas administrativas que considere adecuadas en orden al impulso, consolidación y/o difusión de la actividad que en las mismas se desarrolle en Euskadi.

b) Dirigir el Observatorio Vasco de la Cultura, que como servicio de la Dirección desarrollará las funciones de centro de información, documentación e investigación en materia cultural de la Comunidad Autónoma Vasca.

c) Documentación, realización y divulgación de los estudios e investigaciones que, en el ámbito atribuido a la Viceconsejería, se consideren adecuados.

d) Analizar las fórmulas de coordinación y cooperación con los organismos públicos y entidades privadas, que desarrollen su actividad principal en las áreas asignadas.

e) Elaborar los programas de planificación para la actuación pública en dichas áreas.

f) Velar por la conservación, creación y difusión de la cultura en las áreas anteriormente señaladas.

g) Apoyar el desarrollo de las industrias culturales en el ámbito de Euskadi.

h) Fomentar las relaciones culturales entre los diferentes Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma Vasca y del ámbito cultural vasco.

i) Analizar y proponer las medidas de fomento para la difusión exterior de la producción cultural vasca.

*Artículo 12.–* Dirección de Deportes.

1.– Corresponde a la Dirección de Deportes, el ejercicio de las funciones establecidas en el artículo 8 del presente Decreto en los ámbitos relacionados con el Deporte cuya competencia corresponda a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Horren ildotik, egiteko hauek izango ditu:

a) Diren beharrak aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion arauzko neurriak proposatzea, ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

b) Kirol federazioei beren lanean laguntzea eta horiekin batera lan egitea, indarrean dagoen arautegiaren arabera.

c) Era guztietako kirol elkarteen sorrera bultzatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen barruan, goi-mailako kirol jarduerak sustatzea eta koordinatzea.

e) Bertoko kirolak sustatzea eta horiei laguntza ematea.

f) Euskal kirola Estatuan eta nazioarteko eremuan zabaltzeko neurriak gauzatzea.

g) Erkidego mailako eskola lehiaketak antolatzea.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko kirol instalazioen sarea planifikatzea eta gauzatu dadin lan egitea.

i) Gorputz eta kirol jarduerei buruzko zientzia- eta teknika-ikerketak bultzatzea.

j) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion ikuskapen-lanak egitea eta kirol arloan Eusko Jaurlaritzari dagozkion zehapen-espedienteak izapidetzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroa zuzentzea eta kudeatzea.

l) Kirolgintzaren inguruko informazioa eta dokumentazioa biltzea eta hedatzea, bai eta horren gainean egokitzat jotzen diren ikerketa eta azterlanak egitea ere.

2.– Kirol Zuzendaritzaren zerbitzu nagusiez gain honako administrazio-zerbitzu hauek ere atxikita egongo dira, ekainaren 11ko 14/1998 Legearen bitartez sortuak izan zirenak:

a) Kirolaren Euskal Eskola.

b) Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa.

c) Hobekuntza Teknikorako Zentroa.

3.– Kirol Zuzendaritzari dagokio Kirol Justiziako Euskal Batzordeari bere zereginak behar bezala burutzeko behar dituen bitartekoak ematea.

*13. artikulua.*– Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza.

1.– Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak dekretu honen 8. artikuluan ezarritako egitekoak gauzatuko ditu gazteriarekin eta gizarte-garapenarekin lotuta dauden arloetan, betiere arlo horietako eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarenak badira.

Horren ildotik, egiteko hauek izango ditu:

a) Gainerako erakunde publikoekin eta gizarte-eragileekin batera, gazteak gizarteratzeko jarduerak bultzatzea.

En tal sentido, acometerá las siguientes funciones:

a) Analizar las necesidades y proponer las medidas normativas que correspondan a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de lo dispuesto por la Ley 14/1998, de 11 de junio.

b) Asistir a las federaciones deportivas y colaborar con ellas en el desarrollo de sus funciones en los términos previstos en la normativa vigente.

c) Fomentar el asociacionismo deportivo en todas sus vertientes.

d) Promocionar y coordinar las actividades deportivas de alto nivel en el ámbito de competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

e) Impulsar y apoyar las modalidades deportivas autóctonas.

f) Acometer las medidas para la difusión del deporte vasco en el ámbito estatal e internacional.

g) Organizar las competiciones escolares de ámbito autonómico.

h) Planificar e impulsar la existencia de una red de instalaciones deportivas en el País Vasco.

i) Impulsar la investigación científica y técnica relacionada con la actividad física y deportiva.

j) Ejercer las funciones de inspección que le atribuye la legislación vigente, así como instruir los expedientes sancionadores que en este ámbito de actuación correspondan al Gobierno Vasco.

k) Dirigir y gestionar el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

l) Recoger y difundir la información y documentación que pueda dar cuenta de la situación del mundo del deporte, así como realizar las investigaciones y estudios que al respecto se consideren oportunos.

2.– Además de los servicios administrativos centrales de la Dirección de Deportes, en la misma se ubicarán los siguientes servicios administrativos, creados por Ley 14/1998, de 11 de junio.

a) La Escuela Vasca del Deporte.

b) El Centro Vasco de Medicina del Deporte.

c) El Centro de Perfeccionamiento Técnico.

3.– Corresponde a la Dirección de Deportes dotar al Comité Vasco de Justicia Deportiva de los medios necesarios para el correcto desarrollo de sus funciones.

***Artículo 13.***– Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

1.– Corresponde a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria, el ejercicio de las funciones establecidas en el artículo 8 del presente Decreto en los ámbitos relacionados con la Juventud y el Desarrollo Comunitario, dentro del marco competencial atribuido al Gobierno Vasco.

En tal sentido acometerá las siguientes funciones:

a) Impulsar, en colaboración con otras instituciones públicas y agentes sociales, políticas orientadas a posibilitar una adecuada inserción de las personas jóvenes en la sociedad.

b) Gazte-politika integralak garatzea, erakundearteko eta sailarteko lan-taldeak koordinatuz.

c) Gazteriaren egoerari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzea eta zabaltzea eta arlo horretan interesgarri iritzitako ikerketak eta azterlanak egitea.

d) Sektore horietan, haur eta gazteentzako politikari, gizarte garapenari eta aisiari buruzko beharrak aztertzea eta arauzko neurriak proposatzea.

e) Sustapen soziokulturalerako planak lantzea, eta hezkuntza, kultura eta gizarte ikuspegietatik aisialdia sustatzeko egitasmoak burutzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion zuzeneko jarduerak burutzea arlo hauetan:

– Gazteentzako informazioa eta dokumentazioa, haur eta gazteentzako aterpe-etxeak, gazteentzako turismoa eta gazteentzako gainerako zerbitzuak.
– Gazteentzako Europako egitasmoak eta gazteen arteko trukeak.
– Gazteriari eta gizarte ekintzari dagokienez bete beharreko gainontzeko zeregin guztiak.

g) Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntzan, dinamizazio soziokulturalean eta haur eta gazteei zerbitzuak ematen dizkieten zentroetan lan egiten duten pertsonen ezaugarriak zehaztea eta horien prestakuntza bultzatzea.

h) Boluntariotza eta komunitate-garapena sustatzea eta haur eta gazte elkarteen sorrera bultzatzea.

i) Guztion intereseko jardueretan, Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzea.

j) Gazte-politika integralen garapena eta jarraipena egiteko Gazteriaren Euskal Behatokiaren egitekoak gauzatzea.

2.– Otsailaren 2ko 14/1988 Dekretuak arautako Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Informazio eta Dokumentaziorako Zentro Koordinatzailea Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzari atxikita egongo da.

3.– Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriaren Kontseiluaren arteko harremanak zuzendu eta bideratuko dituena. Beraz, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria izango da Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria, maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

b) Desarrollar las políticas integrales de juventud coordinando los grupos de trabajo interinstitucionales e interdepartamentales.

c) Recoger y difundir la información y documentación que pueda dar cuenta de la situación del mundo juvenil, así como realizar las investigaciones y estudios que al respecto se consideren oportunos.

d) Analizar las necesidades y proponer las medidas normativas en materia de política de infancia y juventud, desarrollo comunitario, y ocio y esparcimiento, de tales sectores.

e) Elaborar planes de promoción sociocultural y los destinados a fomentar la utilización social, cultural y educativa del ocio.

f) Ejercer las funciones de acción directa que a la Administración de la Comunidad Autónoma correspondan relativas a:

– Información y documentación juvenil, albergues e instalaciones para la infancia y la juventud, turismo juvenil y demás servicios a la juventud.
– Programas europeos para la juventud e intercambios juveniles.
– Cuantas otras correspondan en el ámbito de la juventud y de la acción comunitaria.

g) Impulsar la formación y definir el perfil de las personas que trabajan en la educación de tiempo libre infantil y juvenil, en la dinamización sociocultural y en los centros de prestación de servicios a la infancia y a la juventud.

h) Promocionar el voluntariado, el asociacionismo infantil y juvenil y el desarrollo comunitario.

i) Cooperar con organismos y entidades estatales, europeos e internacionales en actuaciones que por razón de la materia resulten de interés común.

j) Desarrollar las funciones atribuidas al Observatorio Vasco de la Juventud para el seguimiento y desarrollo de las políticas integrales de juventud.

2.– Queda adscrito a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria el Centro Coordinador de Información y Documentación Juvenil de Euskadi, regulado por Decreto 14/1988, de 2 de febrero.

3.– La Dirección de Juventud y Acción Comunitaria es el órgano llamado a articular las relaciones entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. En tal sentido el Director de Juventud y Acción Comunitaria representará al Gobierno Vasco a los efectos establecidos en el artículo 14 de la Ley 6/1986, de 27 de mayo.

II. ATALA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA
ETA BERE ZUZENDARITZAK

